



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

13. Neurohezkuntza: nola ikasten du garunak?

Garunari esker ikasten dugu. Hezkuntzan, ordea, organo nahiko ezezaguna da eta irakasleok, orokorrean, bere funtzionamenduari buruzko jakintza eskasa dugu.

Hori hobeto ezagutzeak garrantzi handia du. Leslie Hart-en hitzetan: “Garuna ulertu gabe esperientzia pedagogiko bat diseinatzea, esku bat konprenitu gabe eskularru bat diseinatzea bezala da”. Horren harira, azken urteetan jaiotako diziplina berri bat dugu:

neurohezkuntza. Ez da metodo bat, hezkuntzarekiko begirada berri bat baizik, pedagogiako eta psikologiako jakintzei garunaren funtzionamenduari buruzkoak batzen dizkiona. Diziplinarteko ikuspegia du, beraz, eta helburu nagusia zientzian oinarritutako kultura bat sortzea da, erabaki bat hartzeko garaian ikerketetan eta ebidentzia enpirikoetan oinarrituz.



Etapa guztietako irakasleentzat.



Saio teoriko-praktikoak, azalpenak eta adibideak, bideoak eta hausnarketak, pentsamendu errutinak eta trebeziak, irakurketa dialogikoak eta talde txikitako erronkak.



David Castrillo Alvarez

Lehen Hezkuntzako irakaslea, Neurohezkuntzan sakontze mailako masterra (UB), AFNHn espezializatua (Russell Barkley eskola); haurtzaroarekiko pasioa duena eta bertatik etengabe ikasten saiatzen dena.

Eman izena



LANDUKO DIREN GAIAK

- Neuromitoak hezkuntzan
- Neuroplastizitatea
- Hazkunde pentsaera
- Arreta, memoria eta motibazioaren neuropsikologia
- Emozioak ikaskuntzan
- Espazio hezitzaileak: hirugarren irakaslea
- Funtzio exekutiboak: zer diren, zertarako balio duten eta nola garatu daitezkeen
- TDAH: mitoak eta estrategiak
- Ikaskuntza paisaiak eta pertsonalizazioa
- Garun osasuna